

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko maiatzaren 4a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Elbete • Autrin mendi kaskotik hurbil izoztegi zahar bat berriztatu nahi dute
Joxemiel Bidador • «Izen asko galdu zaizkigu ikerketa seriorik egin ez delako»


Kultur sorta Maiatzean

Barañain



• JOSU SANTESTEBAN

Iruñea



• EGUNKARIA

Martxoko haizeek eta apirileko euriek maiatz loretsu eta ederra egiten omen dute. Bada bai, kultur ekitaldi sorta ederra loratu ohi da maiatzean. Udako kultur ekitaldi 'handien' zain, maiatzean zenbaki erromatarreko jaialdi eta jardunaldi anitz izaten da. Nafarkariak horietako bost bildu ditu: Barañaingo txotxongilo jaialdia, Burlatako Maiatza Rock, Irurtzongo ingurumen jardunaldiak, euskararen gaineko Iruñeko hitzaldiak eta Nafarroako gazte elkarten astea.

Irurtzun



• OSKAR MONTERO

Mutiloa



• EGUNKARIA

Elbete • Mendiak dituen altxorrak



Autrin mendiaren kaskotik hurbil, izoztegi zahar bat berriztatu nahi dute

Aspaldi, udaberri eta uda aldean izotza edo horma (Baztanen erraten den bezala) izateko, mendian harriz inguratutako zulo sakonak eraiki zituzten. Horrela, elurra pilatuz eta zapalduz zuloa estali eta luzaroa irauten zuen izotzak.

ELBETEKO HERRITIK OINEZ, Malkorreko malda hartuta, mendian barrena gutxi gorabehera bi orduko ibilbidea egin ondotik Autrin mendiko kaskora iristen da; 595 metroko altueran, mendi honen magalean izoztegi, elurtegi edo elurzulo zahar bat dago. Iparraldera begira dago, noski, eguzkiak ahalik eta gutxien jotzeko. Sei metro eta hiruretan hogeita bortz zentimetroko diametroa du, eta bortz-sei metroko sakonera. Altueraren arabera, 550 eta 655 metro kubiko elur sartuko ziren bertan.

Zaila da jakitea noiz eraiki zuten harriz inguratutako zilindro hau. Negua iristen zenean, elurra egin ahal, abeltzainek elur hori zuloan metatu eta zapaltzen zuten. U d a b e r r i a n aziendak mendira bidaltzen zituzten eta askotan abeltzainek ere denbora asko pasatzen zuten mendi goietan. Hori dela eta, janariak lu-

zaroan irauteko, idorte garaietan ura izateko eta beste hainbeste erabilpenetarako elurtegiak eraiki zituzten.

Denboraren eta ez erabiltzearen poderioz, zulo handi honen inguruan eta barrenean ere zenbait zuhaitz sortu dira; gaztainondoek, haritzek eta, batez ere, huntzek ia erabat estali dute elurtegia, eta litekeena da mendigoizaleak ondotik pasatzean ez ikustea.

Garai batean ardiak barrenera erori ere egiten ziren, eta, bertan ez hiltzeko, baserritarrek murruko zenbait harri bota eta lurrarekin malda bat egin zuten aziendak bertatik ateratzeko. Elurtegiaren azpialdean zakar asko pilatu da eta hori dela eta ezinezkoa da jakitea benetako sakonera zein den. Bere inguruan lehenagoko borda baten arrastoak ere ikus daitezke; segur aski han egunak pasatuko zituzten baserritarrek eta ardiek.

Elbetekoa, uste baino egoera hobean

Behin Fernando Amorena elbetearrak egunkarietan irakurri zuen Oibar herrian XVIII. mendeko izoztegi bat berriztatu behar zutela. Horrek burutara ekarri zion Autrin mendiaren inguruan antzeko zerbait bazela. Oibarrekoa, gainera, ez zen harriz egindakoa, eta horrek bultzatu zuen Amorena herriko alkateari elurtegia konpontzeko eskatzea. Elurtegia nola zegoen ikuste-

ko, Autrineraino igo ziren joan den astelehenean Patxiko Burgete alkatea, Rafael Irisarri karguduna, Axier Otxoa eta Fernando Amorena bera.

Eguraldi txarrari kontra egin ez, bertaraino joan eta izoztegiaren egoera uste baino hobea zela ikusi zuten; eta konpontzea merezi duela erabaki zuten. Herritarrak ados badaude, diru laguntza eskatuko da auzolanean elurtegia garbitu eta konpontzeko. Animaliak ez erortzeko ere burdin-hari bat jarriko da eta barnera sartu nahi izanez gero eskailera bat egitea espero da. "Nire nahia, elurtegia konpontzeaz gain, mendigoizaleen mapetan agertzea ere bada; horrela, nahi duena bertaraino igo daiteke eraikin harrigarri eta zahar hau ikustera", erran du Amorenak. Antza denez, Baztanen beste zenbait tokitan ere elurtegiak badira. Alkurruntz mendian, Amaiurtik hurbil, beste bat ba omen da. Askok elurtegiak eta kisulabeak nahasten dituzte, itxura antzekoa dutelako, baina kisulabe batzuek azpian sarrera bat izaten dute kisua ateratzeko.

Oibarrekoko elurtegia

Iazko azaroan Nafarroako Mendigoizaleen Elkarteak Oibar herriko La Plana inguruan ibilbide batzuk homologatu zituen. Bide honetatik XVIII. mendeko elurtegi batera iristen da, eta aurten berritua egotea espero dute oibartarrek. Elurtegi honek sei metroko sakonera izanen du eta bere inguruan hesi bat jarriko da istripurik ez gertatzeko. Joan den urtean bide xenda bat egin zen oinez bertara iristeko. EHN lantegiak, Oibarrekoko udalaren laguntzarekin, konponketa lanak bere gain hartu zituen eta 7 eta 10 milioi pezetako aurrekontua aurkeztu zuten. Era berean, elurtegitik hurbil askaldegi bat jarri da sei mahairekin eta hamabortz ibilgailurendako aparkalekuarekin.

→ Rakes Goñi



Negua iristen zenean, abeltzainek elurra zuloan metatu eta zapaltzen zuten. Gero udaberrian izotz hori janariak luzaroan irauteko edota ura izateko erabiltzen zuten. Gaztainondoek, haritzek eta, batez ere, huntzek ia erabat estali dute Elbeteko elurtegia, eta, orain, herritarrek garbitu nahi dute.

• RAKEL GOÑI

Toki ezezagunak mendietan

MENDIRA ATERALDI BAT EGITEN DUGUNEAN, askotan ez gara konturatzeko gizakiak eraikitako hainbat arrasto aurki daitezkeela, historiaurreko dolmen eta trikuharrietatik hasi eta gerra garaiko habia izkutueta. Zenbait tokitan hilaurreko ere aurki daitezke; Iruritako errekan, hain zuzen ere, mendian

galdu eta bertan hil zen haur bate-na aurki daiteke.

Baztan aldean mendian dagoen eraikinik ederrenetarikoa Aizkolegiko jauregia da. Pedro Ziga Mayok Bertizko Jaureria erosi ondotik, 1917 inguruan, Aizkolegi mendiaren gainean udako jauregi bat eraikitzea erabaki zuen.

Gaur egun bertara oinez joaten ahal da mendiz edo jauregiritik ateratzen den 11 kilometroko bidetik. 830 metroko altueran dago eta eguraldi onarekin kostaldea ikus daiteke. Garai hartan ere egoitza hau mantentzea oso garestia zen eta Nafarroko Gobernuak Bertizko Jaureria bere gain

hartu zuenetik ez da ia konponketarik egin. Hori dela eta, jauregiaren egoera tamalgaria da. Bidasoa Ikerketa Zentroak egindako hirugarren koadernoan, Bertizko Jauregiaren eta Aizkolegiko jauregiaren datu ugari bildu dituzte, bertan bizi izan zirenen egoera hobeki ezagutarazteko.

Iruñea • Kultur zentroyen ugaritzea

Udal Planak bederatzi kultur eta gizarte zentro berri egitea jasotzen du

Iruñeko Udal Planak Nabarrieriako eta Iturramako kultur zentroak ixtea proposatzen du, eta bederatzi berri egiteko eta Jus la Rochakoa atontzeko eskatzen. Era berean, liburutegien sarea sortzea biltzen du.



Udal Planaren zirriborroak Nabarrieriako eta Iturramako kultur zentroak ixtea proposatzen du. • JOXE LACALLE

IRUÑEAN EGUN UDALEKO HIRU kultur eta gizarte zentro daude, Jus la Rocha, Iturrama eta Nabarrieria. UPNren Udal Planak lehenengoa atontzea eta beste biak ixtea proposatzen du, alde batetik. Baina, beste aldetik, beste bederatzi kultur zentro sortzea proposatzen du.

Nabarrieriako zentroa itxi nahi dute, «instalazio eskasak eta konponketa bideraezina» duelako. Bere ordez, Alde Zaharrean, Condestable jauregian, zentro berria zabalduko dute. Iturramakoa ere itxi nahi dute, eta Lopez frontoiaren ondoan beste bat zabaldu. Bestalde, eginen dituzten zentro berrien artean, Zabalgunekoa aipatzekoa da. Izan ere, Pablo Sarasate kontserbatorioan egin nahi dute, musika ikasle eta irakasleak

Jose Vila ikastetxera bidaltzen dituztenean. Pio XII etorbideko zentroa egiten laster hasiko dira, eta Sanduzelai eta Mendillorrikoak proiektaturik daude dagoeneko. Txantrean, Ermitagarian eta Santa Luzian beste hainbeste zentro eginen dituzte.

Udal Planaren memoriak jasotzen duenez, zentro hauen eskaintzak adin guzietako hiritarrei zuzendua izan behar du. Zenbait erabiltzaile bazter ditzaizketen taberna, telebista gelak eta antzeko aretoak alde batera uztea adierazten du. Era berean, ez du gomendagarritzat jotzen zentroetan gizarte sekto-

re berezietan zuzenduriko espazioak sortzea.

Udal Plana zirriborroa da oraindik; alderdi politikoei aurkezten hasi dira, eta zuzenketak uda aldean egin daitezke, osoko bilkuran behin-behinean onartu baino lehen.

Liburutegien sarea

Kultur zentroyekin batera, Udal Planak Iruñean liburutegien sarea sortzea jasotzen du. Liburutegi hauek Nafarroako Gobernu-ko Liburutegi Publikoen Sarearekin harremanetan egon behar dute. Iruñean egun Udaleko bost liburutegi daude. Asmoa da

hamaika liburutegi izatea. Etxabakoizkoa bere horretan geldituko dela dirudi, eta Arrosadikoa handitu egingo dute. Orvinko Arriurdiñeta plazara eramanen dute, Donibanekoa Yamaguchira eta San Pedrokoa Monasterio Zaharreko instalazioetara. Sanduzelaikoa Gortari kalean paratuko dute. Iturrama, Mendillorri, Pio XII eta Sarasate kontserbatorioko kultur zentroyen liburutegi bana izanen dute, Udal Plana gauzatuz gero. Azkenik, Santa Luzian beste liburutegi bat egiteko asmoa dago.

→ Asier Azpilikueta

herri aldizkariak Eduñe Elizondo

Zezenagako iturria

Angel Miguel Mendoza eta Maria Angeles Amoztegik Sanpedrokotxarteko Zezenagako iturriarekin duten harremanaz aritu da **Guaixe** hilabetekaria bere azken zenbakian, bikote horrek behin baino gehiagotan konpondu baitu iturri hori: «Angel Miguel Mendoza eta Maria Angeles Amoztegiaren etxean ez da inoiz batueko eta burni urik falta. Bi ur mota horiek osasuntsu direla jakinik bukatu ahala ur bila abiatzen baita Angel Miguel. 64an Sanpedroko sakanean gaizki deituriko Jubilatuen iturria (jato-

rizko izena Zezenaga-iturria baita) hondatuta zegoela ikusita iturburua garbitu eta berreskuratu zuen».

«Dirudenez 60ko hamarkadan Altsasuko jubilatuek batzuek zenbait hobekuntza egin zituzten Sanpedrokotxarteko batueko iturriari. Egin eta gero urteak ez dira alferrik iragan eta mendi ustiaketak, abereen joan-etorriak eta denborak berak iturriaren hondamendia ekarri zuten. 84an Angel Miguelek berregin zuen, baina, atzera, urteen joan-etorriarekin hondatu egin zen. Lanbide hone-

tan temati, 75 urteko altsasuar honek iturburua garbitu zuen iaz: zegoen zikin-keria eta lokatza kendu, iturburua aurkitu arte. Altsasuko mendi teknikariak, Jose Javier Ortigosak, ekimen honen berri izan zuen eta udaleko langileen laguntzarekin zenbait hobekuntza egin zituzten. Angel Miguel pozik dago egin-dako lanarekin baina hobe egin litekeela uste du: «Hormigoizko kitxa bat eginez gero kainua gorago jar liteke. Gainera, konponbide hau iraunkorragoa litzateke».

Hodeiak


Jakina denez, zerukoak ez dira existitzen diren hodei bakarrak. Horietaz aparte badira Hodei Iku-sezinak deitzen direnak ere, eta hainbat modutan sailkatuak izan direnak: Oroipenezkoak, Musikalak eta Sentimenduzkoak. Gure etxeko pasilloan duguna, adibidez, musikala da. Zehazki Leonard Cohenen abesti bat (oso abesti tristea, gainera). Zorutik metro batera-edo dago, eta pasilloa estua denez, ezinezkoa zaigu saihestea. Hortxe dagoela jakin arren, sukaldaria joaten garen bakoitzean hodei musikal ikusezin honen erdi-erditik igarotzen gara, nahitaez, eta, zasl, ohartzetik gabe hasten gara abesti hori kantatzen. Noiztik dagoen ere ez dakigu. Jarautara etorri ginenetik behintzat bai. Hiru hilabete eman ditu hor, eta hor segitzen du.

Beste mota batzuetakoak Oroimenezko Hodeiak dira. Hauek hiriarren barrenean banatzen dira (batzuek munduaren barrenean zabalduta daudela diote, baina nik hiri honetaz bakarrik hitz egin dezaket). Takoneran, esate baterako, asko daude; edo, batek daki, ni joaten naizen bakoitzean guztiakin asmatzen dut! Kontua da Takoneran sartu eta bat-batean Falcesen ume nintzeneko ez-dakit-zer-gauzaz oroitzen naizela eta gogora etortzen zaizkidala landareetan zeuden tomateen usaina, edo izozki saltzailearen kanpaiaren soinua (udako arratsaldeetan sargoriarekin batera plazan agertzen zen).

Hirugarren moldetako bat, Sentipenezkoak bat, oso ezaguna, Magdalenakoa da. Azken honek oso kokapen finkoa du, eta nik betidanik ezagutu dut hor. Magdalenako zubiaren gainean dagoen Malenkoniaren Hodeiaz ari naiz. Pasa den igandean, Txantrean bazkaldu ostean Alde Zaharrerantz abiatu nintzen, aterkia eskuetan, euripean, eta horrela, Argaren gainetik igaro nintzen eta, noski, Magdalenako zubiaren gainetik igarotzerakoan Hodeiarekin topo egin nuen deblauki. Hodeiaren erdian nengoela, Handinahi zehatzik gabe bizitzeko tristea dela otu zitzaidan bat-batean. Bat-batean halaber, ibaieraren ur gainean zihoazen hostotxoek hunkitu ninduten. Ez zen nire kontua izan, kasu, ez naiz horren poeta tontolapikoa. Magdalenako Hodeiaren kontua izan zen. Probatu ezazue zuek, bestela •

Maiatz kulturala

Barañain Txotxongiloak



VII. Titere eta Txotxongilo Jaialdia (7 - 25)

BARAÑAIN TXOTXONGOLOEN HIRIA IZANEN DA aurten ere. Jaialdia udaberrira aitzinatu dute eta urtetik urtera hobetzen doan egitarau mamitsua osatu dute. Txotxongiloak publiko zabalarengana hurbiltzeko asmoz, jaialdiak irauten duen bitartean 45 bat antzezpen eginen dituzte, bi erakusketa egonen dira, 'Hector di Mauro: 50 urte lanean' liburua aurkeztuko dute eta argazki lehiaketa izanen da jaialdiko irudi hobereana saritzeko.

Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako, Brasilgo, Argentinako eta Txekiar Errepublikako konpainiek hartuko dute parte jaialdian; eta bertan euskarak ere zatitxo bat izanen du, Hankagorri, Behibi's eta Phanta Rhei taldeek antzerki lan bana aurkeztuko baitute. Gainera, Euskal Herriko beste bi taldek, Retablo de Figurillas eta Uni K konpainiek, erakusketa bana paratuko dute Barañainen.

egitaraua

- M-7/8 ● Sobreviento; Momentos de Mozart; 19:00; Udaletxeko aretoa
- M-9 ● El Chonchon; Los bufos de la matiné; 19:00; Udaletxe plaza
- M-10 ● El Chonchon; Juan Romeo y Julieta M^a; 19:00; Udaletxeko aretoa
- M-11 ● Roman y Cia; Paella; 19:00; Udaletxeko aretoa
- M-12 ● Arbole; Titeres de cachiporra; 12:00, 17:00, 19:00; Udaletxe plaza
- M-13 ● Hankagorri; Petrikiloak; 12:00, 19:00; Udaletxe plaza
- M-14 ● Behibi's; Zuk zeuk; 19:00; Udaletxeko aretoa
- M-15 ● Pantha Rei; Beltzitina; 19:00; Udaletxeko aretoa
- M-16 ● Titiritrán; Infimo; 19:00; Udaletxeko aretoa
- M-17 ● Los Zanimos; La domadora de verduras; 17:30, 20:30; Udaletxe plaza
- M-1 ● Cuentos de Papel; Despierta, Julián; 11:00; kultur etxea
- M-19 ● Karromato; Circo de madera; 12:00, 19:00; Udaletxe plaza

Iruñea • Euskara

'Euskara erromantze hizkuntzen baitan' hitzaldi zikloa (hilak 7 - 14)

Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak euskararen inguruko hitzaldi sorta zabala eta mamitsua prestatu dute, Euskara erromantze hizkuntzen baitan. Ebro-Garona: komunikazio gune bat izenburupean. Hitzaldi guztiak gaztelaniaz izanen dira, "euskararekiko sentsibilitatea suspertzeko", Ateneoko euskal kulturako arduradun Roldan Jimenok adierazi duenez.

"Euskararen egungo egoera politikoa ikusita, pentsatu genuen interesgarria izanen zela erakustea euskarak izan zuen zabalera handiena eta nola gutika-gutika eremu zabal hori murriztu joan den", komentatu du Jimenok. Euskararen mugez, kanpoko hizkuntzez eta euskarak horiekin zuen harremanaz mintzatuko dira jardunaldietan.

Hitzaldi guztien artean, azken egun ekoa nabarmendu du Jimenok. Michel Grosclaudek eta Claudi Balaguerrek okzitaniarari buruz hitz eginen dute. Baina kontua da Grosclaudek okzitaniaraz eginen duela. "Horrela, erakutsiko du okzitaniara, euskara bezala, hizkuntza zientifikoa eta modernoa dela", erran du Jimenok.

Kultur ekitaldi ugari pilatu dira hileko hainbat jardunaldi eta jaialditan

Txotxongiloak Barañainen, rock kontzertuak Burlatan, ingurumenari buruzko jardunaldiak Iruñez, euskarak hizkuntza erromantzeekin izan zuen harremanen gaineko hitzaldiak Iruñean, Nafarroako Gazte Kontseiluko elkartearen astea. Urtero, asko dira maiatzean egiten diren kultur ekitaldiak, gehiegi horiek guztiak NAFARKARIAko agendan biltzeko. Hori dela eta, horietako bost hartu eta bi orrialdetan metatu ditugu beren egitarauak.

→ Asier Azpilikueta

egitaraua

- M-7 ● Pirinioetako herri musika Danburia taldearen eskutik.
 - M-8 ● Los límites del euskera: Alberto Cañada, Henrike Knörr, Juan Karlos Lopez-Mugartza.
 - M-9 ● Las lenguas foráneas: Ricardo Zierbide, Raquel Garcia, Roldan Jimeno.
 - M-10 ● Gestión del espacio bilingüe: Joaquín Gorrotxategi, Fernando Gonzalez Olle.
 - M-11 ● El euskera en tierras de romance: Mikel Belasko, Javier Sainz Pezonaga, Joxemiel Bidador.
 - M-14 ● El espacio pirenaico: Michel Grosclaude, Claudi Balaguer, Francho Nagore.
- Ekitaldi guztiak Erraldoien Txokoan, 20:00etan.

Burlata • Rock musika

VIII. Maiatza Rock (5, 12, 18 eta 26)

Bihar bertan hasiko da Burlatako Maiatza Rock kontzertu sorta. Aurtengoa zortzigarren aldia da 80 bat kide dituen Euskalherria peñak horrelakorik antolatzen duena. Dena dela, erran beharra dago aurtengoa aurreko urteetakoak baino apalagoa izanen dela. Talde handien kontzerturik ez da izanen aurten.

Josu Morte peñako kideak eman du apalzte horren azalpena: "Kontzertu handia egin nahi baduzu, denboraz egin behar da. Eta gu normalean urtarilean hasten ginen hau antolatzen. Baina kontua da lokaletik bota nahi gaituztela eta urte hasieran ateratzeko agindua eman zigutela. Hortaz, lokal berria aurkitu behar genuen; lokal berri batean sartzen bazara, dirutza da, eta jende guzia ez dago ordaintzeko prest. Eta, noski, ez genekien non egin behar ote genuen urteroko rock kontzertu sorta. Dena dela, apirilean auzia moteldu egin zen, eta, Maiatza Rock egiten jarraitu nahi genuenez, kontzertuak peñan egitea erabaki genuen (Jose Mina, 1). Hortaz, azken orduan antolatu dugu, eta horrela jaialdiaren sustraietara itzuli gara, bertako talde tikiiei sostengua emanez. Behintzat aurten egin dugu; ikusiko dugu hurrengo urtean zer gertatzen den".

Trantsiziozko Maiatza Rock den arren, azkenean egitarau itxurosoa osatu dute. Besteak beste, Josetxo Ezpondak, El Bichok, The Viente taldearekin joko du; eta Dikers, Pottor's eta Sen taldeek euren diskoak aurkeztuko dituzte Burlatan.



egitaraua

- Diapositiba emaitza, Miel Mari
- Elkartea: Pangea espedizioa; 20:00; kultur etxea.
- Txangoa Vianara: Las Cañas urtegia eta Los Arcos ostruka eta. Irteera 08:30ean.
- Haurrentzako antzerkia; Taun Taun taldearen Txio-txioa; 10 eta 11:45; kultur etxea.
- Talo erakustaldi eta dastaketa, Cristina Saralegik; 19:30; Ataldea ikastetxeko sukaldea.
- Mahai ingurua: Behi eroen gaitza. 20:00; kultur etxea.
- Haurrentzako ibilaldia Ergako Trinitatera; gaua aterpean.

urzun • Ingurumena

Ingurugiroari buruzko XI. Jardunaldiak (4 - 20)

Ingurumenari buruzko XI. Jardunaldiak, duela hamaika urte. Hasierakoak jardunaldi monografikoak izan ziren, haize, ur, zaborrari edo uraren zikloari buruzkoak. Azken urteotan egitaraua zabalduz joan da, aurten, adibidez, diapositiba emanaldi bat egongo da Pangea espedizioaren inguruan, eta bat behi eroen gaitzari buruz eta irteera bat hegaztiak ikusteko. Prestatze lanen ardura ez aldatu da, eta, orain, Iruñezgo Udalarri dagokio, Iratxo taldearekin eta Iruñezgo Udalarekin batera.

Urteak ere aldatu dira urteotan, azaldu du Iruñezgo Kultur Koordinatzaile eta jardunaldien antolatzaile Patxi Mikeok. "Hasieran zer edo zer egitea zen asmoa, kontzientzia pizteko. Gaur gure eguneroko bizitzarekin zer ikusia duten gaiak jorratzen ditugu, jendeak ulertzen duen ingurumena zaindu eta errespetatu ditzagula". Herritarren erantzuna dela tute du Mikeok, eta horren ondorioz arduratzen diren herritako ekitaldiak urte osoan antolatzen dituzte.




Mutiloa • Gazte elkarteak

Nafarroako Gazte Elkartearen XV. Astea (7 - 12)

Nafarroako Gazte Kontseiluak biltzen dituen elkarteek jai handia ospatuko dute maiatzaren 12an. "Ekitaldi nagusiak asteburuan dira", erran du Kontseiluko kide Mikel Artxankok. "Egun horiek baliatuko ditugu hedabideetan Kontseiluaren lanaren berri emateko". Asteak 'Alda dezagun' du lelotzat.

Ostiralean kalejira eginen dute Iruñean, eta larunbatean jaialdi handia izanen da Mutiloan. "Nafarroako gazte elkarteek urtean egiten duten lana erakusteko eta elkarte horiek harremanetan jartzeko egiten dugu egun hori". Gazte Kontseiluan 70 bat elkarte daude. "Astearren antolakuntza ez dute talde guzietan parte hartzen, baina bai egunean", dio Artxankok.

Egitaraua zabala antolatu dute larunbaterako. Ekitaldi guztien artean Hechos contra el Decoro taldearen kontzertua nabarmendu nahi du Artxankok, lan handia egin behar izan baitute madrildarrak ekartzeko. Gainera, XV. urteurrena dela eta, ezustekoa egonen da herri bazkariaren ondoren.



egitaraua

- M-7/10 ● Parte-hartzea hedabideetan: prentsaurrekoak, elkarrizketak, irratsaioak
- M-11 ● Munstro kalejira Gazteluko plazatik; 18:30
- M-12 ● Egun osoko jaialdia Mutiloan 10:30: Irekitzea; musika; te zeremonia haima batean; elkartearen erakusmahaiak • 11:30: Txistor jatea; tailerrak; ipuin kontalariak; gimkana • 12:00: Afrikako dantzak; grafiti • 12:30: Murala • 13:00: Herri kirolak • 14:30: Bazkari merkea; ezustekoa urteurrena dela-eta • 16:30: Dantzaldia • 21:30: Kontzertua: Hechos contra el Decoro

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Errege jantziaren ipuina aitzakia, azken lezioa

Aplace

Euskal antzerkiaren historia seriosa, sakon eta dokumentatua egin beharra dagoela ukazina da. Badira hor lan zaharkituak, oraino eskuragarri, besteak beste Labaien *Teatro euskaro* Añamendin edo Urkizuren *Euskal antzerkia*, baina labur geratu dira, eskas eta azalekoak ia, deskoster, baita iraganeko garaietarako ere. Adibideak ausarki aipa litezke. Hortxe dugu, esate baterako, gure honetan aipatua dugun Esarte Jaimerena apaiz iruritarra. Julien Laplaceren hutsunea ere tamalgarria da. Laplacek *Chikito chikito* kan hiru ekitaldiko komedia eman zuen argitara, Oloroen, 1909an, inon aipatua ez bada ere, Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* iturrien artean kurioski baduguna. Aitzina goazi, zalantzarik gabe, baina koordinazio falta ikaragarriegia da oraino, tamalez ere...

Larreta

Azelaingo Joatxin Larreta Arzak izan zen, eite historikoko beste zenbait lanez aparte, *Miluzeko zubiya* leiendaren egilea, Euskara Elkartekoek Iruñean 1882an antolatu lehiaketa literarioan sarituriko idazlana. Campionen aldrakoek ez zuten eragozpen handirik testua *Euskara* aldizkarian argitara emateko, baina betiere argi utziz Azelaingoak eginko testua plagioa baizik ez zela, on Juan Iturralde y Suit jaun txit argiak 1870ean izkiriatu eta karrikaratu *Puente de Miluce* narrazioaren itzulpen erdi askea hots. Ez zuten *Euskara* aldizkariaren egileek agiri historikoak bere kasa letuz historia bere gogora arramoldakatzeko Iturralde zeukakeen dohainaz txintik ere esan, ordea. Eguntan horren indartsu entzuten ari den plagioarena ez da berria, ez eta gurean ere, alabaina, eskuak burura altxatzen dituztenek, zur eta lur bezain haserreturik, Alonsoen ekarri handia irakurri beharko luke, behingoz zein berriz ere, ez baita taxuzko behar ez denean ere baithurarena harrizko joare bezala lepotik zintzilika eramatea.

Larunbe

Rafael Larunbe mediku beratarrak gutxi idatzi da, gutxiegi, bistan dena. Berriki geure Gil Bera erraldoiak Barojaz ondu duen saio gozagarrian Larunber buruzko zenbait aipamen badakarzkigu. Hasiera bateko lana Beran egitearen kariaz Pio Baroja ezagutu zuen, erdal idazleak *El aprendiz de conspiradores* gogorarazten digunez, eta Lesakako ospitaletxoa bisitatzeko zuela Biktoriano Juaristi ezagutu zuen, bizi guztiko laguna izan zuena. Bortzirietatik Donostiara aldatu zenean, kazetaritzan murgildu zen sutsuki, hango *El Pueblo Vasco* egunkarian eta Irungo *El Bidasoa* astekarian gutxi gehien, eta bere artikulurik aipatuena 1918ko gripe izurriaren garaikoak izan ziren. Atarrabian hil

Ipuinetan laketen dugunetarikoa, erregearen jantzi berriarena. Hartan kausi daitekeen jakintza ez da gutti, hainbat arlotan aplikagarri, baita gurean ere. Horixe gogoan, azken lezioa ematera gatozkizue, beti izanen baita zerbait begi aitzinean ikusgai egonagatik ere ikusten ez duguna, hain ohi gara itsu, hain ohi gara gor.



zen, 1925ean. Euskaraz taxutu zituenen artean *Euskalerraren iru kalte* dugu, non edaria sutsuki oldartu zuen. Gil Berak esanda, ordea, Larunbek zertxobait edaten zuen, «lo justo para sobrevivir, cosa siempre ardua».

Latasa

El album del viajero espainiera, frantsesa, ingelesa eta euskara hizkuntzen hiztegia jasotzen duen liburu txikerra da, Vinsonek dioskunaren arabera, Donostian 1865ean inprimarazi zena. Mimiagueren litografiekin batera, Markos Latasak sinaturiko sarrera dugu. Ez da hau arras ezaguna agitzen den lan lexikografikoa, nahiz eta, urteari begira, interesen bat baduela pentsa daitekeen. Latasa horrezaz ez dakigu deus; abizena nafar batena dateke, horretarako aukera ez da txikia bederik ere. Horrek azalduko luke, apika, bere albumak pairatzen duen ezezagutza eta ahaztura. Izan ere, eta ez gara bakarrak hau baieztatzen dugunean, nafarron egoala holakagarria baita, hain da itsusia Nafarroako euskalgintzarekin jazo dena, bi aldetatik jipoitua. Burua altxatuko ahal dugu beste indiferentziaren ginetik soilik geuretako ez bada ere!

Latierra

«Ona emen beste euskaltzale zintzo bat. Gizon jakituna bertsolari mailan. Bere

bizitzako goiti-beitirik ez dakigu asko; gure gizonik geienak, laño ta illunpe biziak ditugu. Alan be, euren egiñak ez izan edozelangoak. Ezta kaxkar, Jainkoak emondako doai ta barne suz be». Santi Onaindiak dio, eta karmeldarrari jarraikiz beste guztiek. Ez zuten ikusi, berriz, Luis Latierra bertsogile fina Pedro Ignazio Latierra Zabala tornulari azpeitiarra — lehenbizi Orozkoko eta geroago Donostiako udal txistularia — zenaren ondorengo zela. Ez zen Latierra txistu mundua eta euskal literatura uztar berean loturik zeramatzan bakarra; ezaguna da Lizasotarren ekarpena, Gilermo aitarena zein Alejandro eta Felipe semeena. Horren parean, zenbat eta zenbat diren gurean analfabeto musikalak, notak idazten zein irakurtzen ez ezik kantan ere dagoeneko ez dakitenak! Liburuetako lerroak ere pentagramarenak bezain entelegagaitzak hasi zaizkiela dirudi.

Lissardy

Hegoaldeko euskaldunek oraino sobera goratua ez bide duten Abbadi hark bultzatu zenbait literatur

sariketatan epaile moduan jardun zutenen artean Lissardy izenekorik bazen, 1853koan bederen, Dassance, Harriet, Goyhette, Ducos eta Larembourekin batera. Datuak ez luke garrantzi handiagorik zenbait urte beranduxeago Probinztiyako beste euskal idazle handiak bere olerkiak sinatzeko aukeratu gaitzizena izen bera ez balitz, Lizardi alegia. Aunitzetan grafia kontuei behar ez den garrantzia ematen tematzen gara, goiti zein beheiti, zinez garrantziko dena ahantziz, hau da, grafiak gorabehera, Lizardi eta Lissardy garela, ez ordea, *fresneda* zein *frénaie*. Mugen miseriak egokitu zaizkigu inon baino makurrago, baina euskaldunak euskaldun jakin izan du. Mugak atzeman-gaitzago diren honetan, berriz, Lizardi gero eta urruntzenago Lissardyrengandik, Rimbaud etorri bazen ere...



Ziria

• Motxorrosolo •

Azken kaia

DIPUTAZIONEAK HARTU ERABAKIAK, ELKARGOAREN US-tezko porrota emendatu behar zuen. XIX. mendearen akaberako aferak. Egun bezalaxe, ordukoan ere, zirrikitu oro baliatzeak onura ekarri zion euskalgintzari. Besterik ez bada, iragana egungo mintzamolde zaharkituen mesedetan baliatzen dutenen eskergarri. Alta, poztasunerako arrazoiak, egon badaude, aurki martxan abiatuko den ekimena hainbat gabeziaren emendatzaile izanen baita, eta anitzetan gertatzen den legez, etorri behar zuen tokitik helduko zaigu, izen-abizenak dituzten

euskaltzale anonimoak baitira dugun kapitalik preziatuenena. Sei euroko hitzek, gehienez ere, izerdia eragin dezakete, baina, taldeka edota bakarka, norbanakakoak dira blaitzen direnak. Ondoren, lan egiteko molde hori ezbaian jarri zutenak, lorpenen kudeatzaile agertuko zaizkigu, haiek dira profitatuko ekinbide horien arrakastaz. Autokritikarako gaitasun ezak lotsagabetasuna eragiten baitu. Bizkitartean, izerdia lagun duten horiek, égarria aseko dute.

Kaia babestoki eta abiapuntu izan baitaiteke.

Joxemiel Bidador

KLASIKO BILATZAILE

«Izen asko galdu zaizkigu ikerketa serioa egin ez delako»

Sei urte luze eman ditu Joxemiel Bidadorrek liburu, aldizkari eta egunkari zaharretan aurkitzen zituen nafar autore ahaztuak edo ezezagunak Nafarkarian argitaratzen. Lan ederra egin du Klasiko bitxi, arrot klasiko sailean eta, oraindik ere, izen gehiago erreskatatzen ahal direla dio.



JOXEMIEL BIDADORREN NAFARKARIAKO lehen klasiko bitxia 1995eko otsailaren 10ean agertu zen; eta azkena, gaur bertan. Denetara, 421.

■ **Anitz dira Nafarkarian agerriarazi dituzun Nafarroako euskal autoreak. Baten bat gelditu zaizu ateratzeko?**

Bai, oraindik badira autore nafarrak, eta hau nahi adina luza zitekeen. Hasiera batean ez nuen Nafarroako idazle askorik atera, egia esateko, betikoak ezagutzen nituelako. Baina ikerketak egin ahala, ezagutu ditut asko. Eta denbora gehiago jarrai nezakeen Nafarroako idazleekin bakarrik. Baina idatzi sorta ederra egin ostean, bazen garaia uzteko. Askotan nafarrak ez diren idazleak sartu behar izan ditut, derrigortuta. Astekari batek eskatzen duen diziplinan zaila izaten da beti edukitzea zerbait interesgarri, inork ezagutzen ez duena.

■ **Gurea literatura laburra dela errana duzu, eta dagoen guzia atera behar dela. Idazle ahaztuak edo ezezagunak ezagutaraztea izan da zure helburua. Aurkitzen dugun guzia atera behar dugu argitara?**

Tira, horretan bada eztabaida. Galdetu beharko genuke zer ote den literatura, eta ea aurkitzen dugun guzia atera behar ote den. Baina nik uste dut hemen askotan gauza asko jakintzat eman direla. Esate batera, esan izan da Nafarroan ez dela euskal literaturarik egin. Eta egin da. Adibidez, Diario de Navarrak 1915 eta 1920 urte bitartean izan zuen astero-astero sail bat euskaraz. Nik ez dut ezagutzen inor sail hori hartu duena eta horrekin zerbait egin duena. Izen asko galdu zaizkigu ikerketa serioa egin ez delako. Idazle horiek baditugu, baina sekula ez dira aipatu ere egin. Horretan eraginik izan du Nafarroako egoera politikoak; orain haurrek Nafarroako benetako historia ikasiko dute itzultitako liburuetan; jakin nahiko nuke non geldituko den gure euskal literatura liburu ho-

soslaia

1970ean Iruñean sortua. Euskaldun berria. Euskal filologoa da eta euskara irakasle aritu da Tuterako ikastolan, AEKn eta NAPIn, orain. Baina bestelako lanak ere egin ditu: «Mañuetako gurasoen dendan lan egin dut, fruta biltegi batean ibili naiz, eta Arguedasko enpresa batean sukaldari ere bai».

«Orain folklore mundutik nahiko aldendurik nago», dio Bidadorrek. San Lorentzoko dantzarien taldeko kiderik gazteena da, Tuterako Muga elkarteko eta Erraldoinen Konpartsako kidea da, eta Txistulari Elkarteko bazkidea ere bada, nahiz eta txistuaz ez dakien «deus».

Joxemiel Bidador Nafarroako euskal literaturaren ikertzailea da. Alexander Tapia Perurena eta Jose Agerre Santesteban iruindarren olerkiak, eta Sakanako hainbat egileren lanak bildu ditu hiru liburutan. «Euskarazko kazetaritza Iruñean, 1910-1920» liburua ekainean aurkeztuko du. Pamielarekin Nafarroako euskal literaturaren historia idatziko du. Eta Hizkuntza Politikari proposatua dio NAFARKARIAKO artikuluen bilduma egitea; «baina horrekin ez dut esperantzarik», erran du.

rrietan. Baina euskaldunek egini-ko testu liburuetan ere Nafarroa beti geratu da bazterturik. Gipuzkoan eta Bizkaian anekdotikotzat jo dute Nafarroan gertatzen dena. Konplexua izan dugu askotan, eta kostaldera begiratu dugu hemendik. Eta horrek lagundu du gurea ahazten. Haiengandik ezin dugu espero izen ez-

kutu horiek ateratzea, guk atera behar ditugu. Eta nik uste dut lan polita egin dudala izen horiek ateratzen.

Iaz Nafarroako euskal idazleen zerrenda egin nuen, eta atera zitzaizkidan 400 bat izen. Kontuan hartzeko kopurua da.

■ **Irakurleen hatsa falta izan zaizula entzuna dizut.**

Bai, irakurlearen ahotsa, kritika, falta izan zait askotan. Etxean bertan, nire lagunak eta ezagunak ez dute irakurri. Normale-

an, sentitu dudana izan da sekulako bakartasuna. Nik datu asko ematen ditut nire idazkietan. Hori izan da nire intentzioa, datuak hor geratzea. Baina, argi gera bedi hau ez dela uzteko arrazoia izan. Utzi nahi dut ez zaidalako egokia iruditzen Nafarkariako txoko hau niretzat hartzea betiko. Nekatu egin naiz, sei urte asko baitira. Nekatu bai, baina ez nazkatu.

→ Asier Azpilikueta

Motxorrosolo

ZIRIKATZAILE ENKRIPTATUA

«Dena ulertu nahi izateak kalte ekartzen digu»

Motxorrosolok, Bidadorren antzera, gaur utziko dio Nafarkarian kolaboratzeari, D'Oconen hieroglifiko moduko hamaika ziriren ostean.

■ **1997ko irailaren 26an zure lehen ziria Haitzgibel bezala sinatu zenuen; hurrengo astean, Motxorrosolo izan zinen; hurrengoan, Motxorrosolo; eta, azkenik, Motxorrosolo. Kosta zitzaizun izengoiti egokia aukeratzea.**

Hasiera batean ez nekien zein hartu, Haitzgibel ala Motxorrosolo. Bigarrena aukeratu nuen, baina ez dakit

nik gaizki ahoskatu edota Nafarkariakoek gaizki ulertu ote zuten, baina hirugarrena arte ez genuen asmatu.

■ **Zirikatzen ibiltzeak izengoitia eskatzen du oraino?**

Ez, ez. Zirikatu daiteke benetako izenarekin ere, baina gauzak egiteko tenorean, izengoitiarekin beste toki batetik behatzen dira kontuak.

■ **Ez duzu uste gehiegixko enkriptatu dituzula zure ziriak?**

Hori nahita egina da, dena ulertu nahi izate horrek kalte ekartzen baitigu. Motxorrosolori iruditzen zaio maiz

askotan oso garbiki azaldu dela arazoaren muina, eta hori dela eta, egiarki interesgarriak diren eztabaidei ez zaiela heldu. Orduan, Motxorrosolok egin nahi izan duena izan da iradokitzea, besterik ez.

■ **Alta bada, ez duzu uste 'alta' gehiegi erabili duzula?**

Hasieran, bai, onartzen dut, 'alta' gehiegi baziren ziritetan. Motxorrosoloren ohitura txarra zen. Baina, aspaldi honetan, hamarretatik batean sartu dut soilik. Dena dela, aipatu nahiko nuke iparraldetik inoiz eskerak jaso ditudala. Eta hori pozgarria izan da niretako.

NAFARROA
KAPITAINA
Petilla ^{eta} Komandanteordea
Errentz Aitorpenaren
Objektuaren
BORROKA TITANIKOA
dagoeneko
martxan da!!



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Nafarra izatearen zailtasunak

Zaila da nafarra izatea. «Batez ere Nafarroan», esanen du batek. Egia. Nafarroan zaila da oso nafarra izatea. Betidanik, eta batez ere azken bolada honetan, askozaz errazagoa izan da navarro edo navarra izatea. Akaso horrexegatik euskal kostaldera gatozen baikoitzean «zuek naparrok... bai meritua... eutsil!» esaten digute. Baina ez pentsa, Nafarroatik at ere 'nafarra' izaten jarraitzeak izan badu zailtasunik.

Duela zazpi hilabete beste napar-kide batekin hasi nintzen lanean, non eta Donostian. Pentsatzekoa zenez, lantokian euskal-autonomi-erkidegotarrez inguratuta geunden. Bizkaitarrez eta batez ere gipuzkoarrez. Nafar perretxikoaren aldeko aldarrikapena egiten dugun aldioro meaplayas deitzen gaituzten horietaz hain justu.

Baina naparrak ginen. Onerako edo txarre-rako, hori zen gure ezaugarri nabarmena. Arabar bakarra zegoen, gasteiztarra bera. Ez zioten goitzen berezirik ezarri; hari soilik Raúl esaten zioten. Hala baitu izena. Guri ez. Guri naparrak. «Ni arrantzalea naiz, hura irakaslea... eta zu? «Ni naparra» da erantzunik egokiena. Ogibidea balitz bezala, igual-igual.

Edozein tokitara joan eta edozer gauza eskatu, taberna batean garagardo bat, esate baterako, eta tabernariaren ohiko «bai, oraintxe» horren ondotik jatorri-itaunketa dator: «Hi nondarra haiz». «Adios! Erkidegotarra ez naizela ohartu da. Ukitu forala sumatu ote dit?». Horrelakoetan bestelako ingurumaririk gabe egia botatzea da hoberena: Iruñekoa. «Hara! Iruñekoa eta euskalduna, e? Baina sekuru aitonaren bat azpeitiarra edo huala», tabernariak. «Ezetz ba!» erantzuteko irrikitan nagoen arren gelditzen zaidan apaltasun dosi eskas hori gainditu eta zera esaten diot: «Ez keba, ikastolakumea naiz, gurasoak erdaldu-nak, tar-tar-tar...». Ooooh, aaaaah, entzuten dut inguruan. Ezin dute sinetsi. Sekulako ahalginak egin behar izan nituen ditxosozko 5. maila ateratzearren eta erdarakadak botatzeari uztearren (oraindik ere) eta orain bardulorak Aitorren hizkuntza zaharraz liluratzan ari garela? Bai zera! Neu naiz sinetsi ezinik dabile-na. Euskaldun bakarrak direla uste dute.

gure aukerak

MUSIKA

- **Elizondo:** Animese Martinez taldea Kasino ostatuan izanen da gaur, 22:30etan.
- **Aitzoain:** La Tercera Republica taldeak Artsaia aretoan joko du gaur, 23:00etatik aurrera. Sarrera doakoa da.
- **Iruñea:** Konde Rata, Liberacion eta KGI taldeen kontzertua izanen da bihar, 21:00etan, Euskal Jai gaztetxean.
- **Gares:** Javier Vargas Blues Band taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 23:00etan, Gares aretoan.
- **Burlata:** Anorexia taldeak Black Rose tabernan joko du asteartean, 21:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Miarritze:** Astelehenean, Amets Arzallus eta Sustrai Kolina ariko dira 21:00etatik aurrera, Casinon.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Asteartean, Desarrollismoa azpiegiturretan kapitalismo globalaren oinarria da izenburupean hitzaldi - eztabaida egonen da Euskal Jai gaztetxean, 20:00etan
- **Iruñea:** Asteazkenean, Roldan Jimenok Kristautasunaren sorrera Nafarroan izanen du mintzagai, 12:00etatik aurrera, NUPeko Historia eta Geografia doktoradutza gelan.

ERAKUSKETAK

- **Burlata:** M^a Isabel Elizondoren margolanak Joakin Azkarateko kultur aretoan daude ikusgai, hilaren 13a arte.

LEHIAKETAK

- **Bertiz:** Bertizko parke naturaleko lehen margo lehiaketan lanak aurkezteko epea gaur akituko da. Margolanek naturaren in-

gurukoak behar dute izan eta 80 x 90 zentimetroko neurriak izaten ahal dute gehienez. Garaile bakarrarentzako dirusaria hiru milioi pezetakoa izanen da (120.000 libera).

BESTAK

- **Noain:** Gaurtik igandea bitarte Udaberriko Bestak ospatuko dituzte herrian. Ostirala: haurrentzako antzekia San Miguel plazan (17:00); zezensuzkoa Real karrikan (22:15); dantzaldia San Miguel plazan (00:30). Larunbata: haurrentzako jokoak San Miguel ikastetxean (11:30); kalde-

reteak San Miguelen (14:00). Igandean, III. Dantzari Eguna: Zangoza, Lizarra, Agoitz, Beriain eta Noaingo dantzari tti-kien jaialdia San Miguelen.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Gaur Euskal Liburuaren II Irakurketa Publikoa egingen dute Iturrama institutuan, 9:30etatik 14:00etara Axularrren Gero irakurritz. Besteak beste, ondoko irakurleak izanen dira: Miguel Angel Lotina (9:35); Alberto Martin (10:05); Kike Diez de Ultzurrun (10:15); Estitxu Arozena (10:35); Ando-

ni Erburu (12:10); Abel Barriola (12:40); Roldan Jimeno (13:05); Martxelo Sotes (13:15); Pedro Miguel Etxenike (13:45); eta Jean Haritschelhar (13:55).

- **Iruñea:** Bihar, ohi denez, Arkakusoen Azoka Ttikia egingen dute, goizeko hamarretatik aurrera, San Jose plazan. Bertan antigoaleko eta bigarren eskuko objektuak saldu edo trukutzen ahal dira.
- **Iruñea:** Donibaneko Irrintzi eskalategiak igandean Senperera joateko autobusa antolatuta du. Txartelak euskalategian bertan edo Toki Eder ostatuan hartu behar dira.

MIKEL SAIZ



Portland San Fermin

Joera arriskutsua hartu dute politikoei Iruñeko txupinazoa jaurtikitzeko ohorea banatzeko tenorean. Iazkoa Osasunari egokitu zitzaion, Espainiako Lehen Mailarako txartela eskuratzegatik. Aurtengo sanferminei, berriz, Portland San Antonioko kideren batek emango die hasiera, Europako Kopa irabazi dutelako. Hurrengoa nori emanen diote? Indurain erretiratuari? MRA Ingeteam Xotari? CBNri? Edo Mikel Goñiri? Okerrena da Udaleko politikari guziek aho batez sostengatu dutela alkate anderearen erabaki populista besterik ez dena. Noski, astelehenekoa bezalako ospakizun jendetsuak ikusirik, hagitx arriskutsua da horrelako erabakiei aurre egitea. Kirolariak bukatzen zaizkienean, orduan etorriko dira komeriak, gizartearen beste esparru guztietan iritziak arras ezberdinak baitira. Bitartean... Portlandarrak!, gora San Fermin!